

INFORMAZIOAK INFORMACIONES

LEGEBILTZARREKO ORGANEN ERABAKIAK ETA KOMUNIKAZIOAK ACUERDOS Y COMUNICACIONES DE LOS ÓRGANOS PARLAMENTARIOS

Eusko Legebiltzarraren erregistro elektronikoa sortzea

Mahaiak, 2010eko otsailaren 2ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila ondoko erabakia.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Arantza Quiroga Cia

EUSKO LEGEBILTZARRAREN ERREGISTRO ELEKTRONIKOA SORTZEA

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, Herritarrek Zerbitzu Publikoetarako Sarbide Elektronikoa Izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, erabaki du Eusko Legebiltzarraren erregistro elektronikoa sortzea, honako helbide honetan: www.legebiltzarra.org/registro.

Erregistroaz arduratuko den unitatea Eusko Legebiltzarreko Idazkaritza Nagusia izango da.

Agiriak eta idazkiak urteko egun guztietan eta egunaren hogeita lau orduetan aurkeztu ahaliko dira elektronikoki.

Epeen neurketarako, aipatutako legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Hala ere, egun baliodun eta baliogabeei dagokienez, ondoko arabei jarraituko zaie Eusko Legebiltzarraren erregistro elektronikoa:

- Izaera parlamentarioa duten idazkiak jasotzeko, Eusko Legebiltzarraren Erregelamendua izango da egun baliodun edo baliogabeak finkatuko dituen araua.
- Administrazio-prozedura erkiderako bidea ematen duen beste zeinahi idazkiri dagokionez, 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, izango da bete beharreko araua, 11/2007 Legearen 26.5 artikuluko salbuespena kontuan izanda.

Creación del registro electrónico del Parlamento Vasco

La Mesa, en su reunión del día 2 de febrero de 2010, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del siguiente acuerdo.

La presidenta del Parlamento Vasco
Arantza Quiroga Cia

CREACIÓN DEL REGISTRO ELECTRÓNICO DEL PARLAMENTO VASCO

La Mesa del Parlamento Vasco acuerda, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de Acceso Electrónico de Los Ciudadanos a los Servicios Públicos, la creación del registro electrónico del Parlamento Vasco, cuya ubicación será la siguiente: www.legebiltzarra.org/registro.

La unidad responsable de dicho registro será la Secretaría General del Parlamento Vasco.

La presentación electrónica de documentos y escritos estará abierta todos los días del año durante las veinticuatro horas.

En cuanto al cómputo de plazos, se estará a lo dispuesto en el artículo 26 de la mencionada ley. No obstante, se señala que, en lo relativo a días hábiles e inhábiles, las normas que regirán el registro electrónico del Parlamento Vasco son las siguientes:

- En lo relativo a la recepción de escritos de índole parlamentaria, será el Reglamento del Parlamento Vasco la norma que prescribirá los días o periodos hábiles o inhábiles.
- Para cualquier otro tipo de escrito que dé lugar a un procedimiento administrativo común, la norma a observar será la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, teniendo en cuenta la excepción contenida en el artículo 26.5 de la Ley 11/2007.

